

DIRU ITURRIAK

Diru-sarrerak iturri desberdinen bidez lortuko dira, **harpidetzak, zerbitzu digitalak eta osagarriak** uztartuz. **Bezeroek hilero ordainduko** dute **harpidetza-kuota**, gimnasioaren erabilera eta entrenamendu pertsonalizaturako sarbidea barne.

Horrez gain, aplikazioaren **premium zerbitzuak** kontratatzeko aukera izango dute, plan eguneratuak, nutrizio gomendioak eta erronka bereziak eskuratzeko.

Makina adimendunek entrenamendu gidatuak eta plan bereziak eskainiko dituzte, eta erabiltzaileek saio bakoitzeko ordainketa txikia egingo dute. Diru-sarrera **osagarriak** sortuko dira **publizitatearen** eta **marka kirolariekin** egindako lankidetzaren bidez, bai aplikazioan bai instalazioetan.

Bestalde, **beste gimnasioei gure sistema txertatzeko** aukera emango diegu, modu horretan gure sistema hedatuko dugu eta gure diru sarrerak handituko dira.

Azkenik, **vending makinek** ura, edariak, janaria, elikagai osagarriak eta esku-oihalak eskainiko dituzte, gimnasiorako diru-sarrera gehigarri gisa.

Harpidetza-kuotari dagokionez, bezeroek **60 euro** ordainduko dute **hilero**, **gimnasioaren erabilera osoa** eta **entrenamendu pertsonalizaturako oinarritzko sarbidea** barne. **Aplikazioaren premium zerbitzuek, plan aurreratuak, nutrizio gomendio pertsonalizatuak** eta **erronka bereziak** eskainiz, **10 euro gehiago** izango dira **hilero**. Gainera, **lehenengo 100 harpaideek promozio** bat izango dute, hau da, lehenengo hilabetea dohainik izango dute.

